

2008ko urtarrilaren 29an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.007KO ABENDUAREN 18KO ETA 2.008KO URTARRILAREN 15EKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.- 2.008KO AURREKONTUAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 4.- 2.008KO PLANTILA ORGANIKO ETA UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN ONARPENAK.
- 5.- EGUTEGI LABORALAREN AZTERKETA.
- 6.- 1/2008 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TXERTAKETA MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
- 7.- LARDIKO TERRENOAK ESKRITURATZEKO ALKATEARI SINATZEKO BAIMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 8.- UDALERRI ENPRESA PROIEKTUA BURUTZEKO HITZARMENA SINATZEKO ERABAKIA HARTZEA.
- 9.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 10.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 11.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2008ko urtarrilak 25.

ALKATEA.

2.008KO URTARRIAK 29.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Iker Iturrioz Lekuona.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabea:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita bederatziko hogeitaz hamabost minutu izanik, Adunako Udaleko Udabatzak bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berak burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2.007KO ABENDUAREN 18 ETA 2.008KO URTARRILAREN 15EKO AKTEN
ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak 2007ko abenduaren 18 eta 2.008ko urtarrilaren 15eko akten berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziak aho batez onartzen dituzte.

**BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Asier Aizpurua Sanz Jaunak Txantxaneako bi etxebizitzetarako atek atzekaldean jartzeko ahalbideen gaineko argibide eskaera (148/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- Xabier Aramburu Irazu Jaunari Uparan Industrigunean G-1 Cicarsa Area 12 partzela ixteko baimena (149/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- Xabier Begiristain Arruti Jaunak Zubitxiki Industriguneko 14.1-ean eskatu duen argi eta soinu ekipoen alokairu eta instalazio iharduerari hasera ematea (1/2008 Alkatetza Ebazpena).

4.- Xabier Begiristain Arruti Jaunak Zubitxiki Industriguneko 14.1-ean eskatu duen argi eta soinu ekipoen alokairu eta instalazio ihardueraren inguruko errore zuzenketa (1B/2008 Alkatetza Ebazpena).

5.- Ertzaintzari laguntza eskatzea Leandro Galatas Bengoetxea jaunaren jabetzakoa den Adunako Etxeberri baserriari dagokion desjabetzapen espedientean lurtzia okupatzeko (2/2008 Alkatetza Ebazpena).

6.- M^a Jose Baltasar Alberro Andereari Lardi auzoko negutegi aurrea asfaltatzeko baimena (3/2008 Alkatetza Ebazpena).

7.- Lizarreka, S.L. enpresari 15 egunetako epea ematea, enpresa burutzen ari den ihardueraren inguruan obra amaierako ziurtagiria aurkezteko (4/2008 Alkatetza Ebazpena).

8.- Rosa Garmendia Andereari Maderas Garmendiaren izenean hilerriko bidea erabiltzeko baimena (5/2008 Alkatetza Ebazpena).

9.- Pablo Zumeta Zubelzu Jaunari Lardi auzoko 9.zenbakian kokaturiko negutegia zabaltzeko baimena (6/2008 Alkatetza Ebazpena).

10.- Construcciones Trati, S.L.-ri Udallerri honetako 1.5-6 unitatean garaje iharduera legeztatzeko establezimendua irekitzeko baimena (7/2008 Alkatetza Ebazpena).

11.- Jose Mari Zabala Jaunari Zabale-Txiki etxean berriztapen obrak egiteko proiektua aurkezteko errekerimentua (8/2008 Alkatetza Ebazpena).

12.- Udalaren jabetzako eraikinetan obrak egiteko aurrekontua eta memoria onartzea (9/2008 Alkatetza Ebazpena).

13.- Francisco Sorondo Alkain Jaunari Segotegi etxearen eskuinaldean eta atzekaldean bere lursailaren muga itxitura egiteko baimena (10/2008 Alkatetza Ebazpena).

14.- Ertzaintzari laguntza eskatzea Leandro Galatas Bengoetxea jaunaren jabetzakoa den Adunako Etxeberri baserriari dagokion desjabetzapen espedientean lursailean sartu eta erreplanteo eta obrak egiteko (11/2008 Alkatetza Ebazpena).

15.- Designhouses Arq e Int, S.L. enpresari Urtaki Industriguneko 24.zenbakian bere iharduera gauzatzeko proiektua behar ez denaren jakinaren gainean geratzea (12/2008 Alkatetza Ebazpena).

16.- Sointek enpresari bere iharduera gauzatzeko proiektua aurkezteko errekerimentua (13/2008 Alkatetza Ebazpena).

17.- Benito Barkaiztegi Iribar Jaunari Zubitxiki Industrigunean bere iharduera gauzatzeko proiektua aurkezteko errekerimentua (14/2008 Alkatetza Ebazpena).

18.- Daniel Barcos enpresari Uparan Industrigunean gauzatzen ari den iharduera ren inguruko idatzia (15/2008 Alkatetza Ebazpena).

19.- Cristaleria Albisu Kristaldegia, S.L-k Urtaki Industriguneko 27.zenbakian kristaldegia tailerra legezatzeko eskaturiko espedienteari hasera ematea (16/2008 Alkatetza Ebazpena).

20.- 2.007 urteko 4.hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuagatiko tasaren errolda onartzea (17/2008 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:

2.008KO AURREKONTUAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak 2008ko aurrekontuaren proposamena egiten du eta adierazten du aurrekontua 1.386.900 €-tako dela. Aurrekontua aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez zera erabaki du:

1.- 2.008ko aurrekontuari haserako onarpena ematea. Aurrekontuaren laburpena kapituloka honako hau da:

SARRERAK.

I KAP	ZUZENEKO ZERGAK	248.300
II KAP	ZEHARKAKO ZERGAK	20.000
III KAP	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	121.300
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	700.600
V KAP	ONDARE SARRERAK	9.900

VI KAP	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZEA	800.000
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	20.600
	GUZTIRA	1.920.700

GASTUAK

I KAP	PERTSONAL GASTUAK	231.000
II KAP	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	274.850
III KAP	FINANTZA GASTUAK	39.000
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	140.800
VI KAP	INBERTSIO ERREALAK	902.500
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	14.000
IX KAP	FINANTZA PASIBOAK	318.550
	GUZTIRA	1.920.700

2.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aipatzen dena beteaz, jendeaurreko informaziora jartzea, Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den lanegunetik hasi eta hamabost laneguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

LAUGARREN PUNTUA:

2.008KO PLANTILA ORGANIKO ETA UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN ONARPENAK.

Urtero bezela, aurrekontuarekin batera, Udaletxeko plantila organikoa eta udal lanpostu zerrendak onartu behar direnez, 2008 ekitaldirako Alkateak honako hauek izatea proposatzen du:

PLANTILA ORGANIKOA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea.

Lanpostuak-1

Taldea-A1

Egoera-H

Efalebae maila-19

Oharra: %100eko dedikazioa.

2.- Administrazio Orokorreko Administraria.

Lanpostuak-1
Taldea-C1
Egoera-J
Efalebae maila-13

3.- Aguazila.

Lanpostuak-1
Taldea-D
Egoera-F
Efalebae maila-8

4.- Garbitzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-D
Egoera-F
Efalebae maila-7
Oharra: %75eko dedikazioa.

UDAL LANPOSTU ZERRENDA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea:

Eskala- Estatuko gaitasuna.
Azpieskala- Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-A1
Maila-19
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 4^a
Derrigoratsun data- 1994-12-31
Titulazioa- Z/E/S Dp +1
Hornitzeko sistema- lehiaketa-oposizioa.

2.- Administraria:

Eskala- Administrazio Orokorra
Azpieskala- Administraritza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-C1

Maila-13
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 3^a
Derrigoratsun data- 1994-12-31
Titulazioa- Goi Mailako Batxilergoa
Hornitzeko sistema- lehiaketa

3.- Aguazila:

Izaera- Laborala
Taldea-D
Maila-8
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 2^a
Derrigortasun data- 1994-12-31
Titulazioa- Eskolaritate ziurtagiria+1

4.- Garbitzailea:

Izaera- Laborala
Taldea-D
Maila-7
Dedikazioa- %75
Hizkuntz eskakizuna- 1^a
Derrigoratsun data- 1994-12-31
Titulazioa- Eskolaritate ziurtagiria+1

Plantila eta lanpostu zerrenda botutara jarriaz, aho batez, onartzen dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onartzen da, jendeaurrean egoten den epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**BOSTGARREN PUNTUA:
EGUTEGI LABORALAREN AZTERKETA.**

Kontuan izanik gaurko datan 2.008 urterako Administrazio Lokaleko langileen baldintzak erregulatzeko hitzarmena onartu gabe dagoela eta beti ere 2007ko hitzarmena kontuan izanik, Udalbatzak, 2.008 urterako ondoren aipatzen den egutegi laborala aho batez onartu du:

1.- Urte osoko 1.592 lan orduak eta bere laneko portzentaia kontuan izanik, langile bakoitzak dagozkion orduak sartzea eta hitzarmenaren araberrako oporrak eta berberaren egunak hartzea.

2.- Maiatzak 2 eta abuztuak 1 zubiak egitea.

3.- Uztailak 25ean lan egitea.

4.- Eusko Jaurlaritzak 2008 urterako eta Udaletxeak festa lokal bezela (abuztuak 14) jarritako egunak jai egitea.

SEIGARREN PUNTUA:

1/2008 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TXERTAKETA MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak 1/2008 zenbakia daraman kreditu txertaketan modalitatean 273.652,26 €-tako kantitatean kreditu aldaketa onartzea proposatzen du eta dagokion espedientearen berri ematen du. Proposamenaren laburpena ondorengoa da:

KREDITU TXERTAKETEN PROPOSAMENA

Txertaturiko kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

Partida	Izena	Haserako kreditua
1.0000.601.511.00.01	Lardi auzoko urbanizazioa	200.000,00
1.0000.601.511.00.02	1.8 unitateko hiritartze proiektuak	73.652,26
GUZTIRA		273.652,26

Txertaturiko kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

Partida	Izena	Haserako kreditua
2.0000.600.000.00.01	Terrenoen salmenta	273.652,26
GUZTIRA		273.652,26

Kreditu aldaketa hau aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez onartzen du.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
LARDIKO TERRENOAK ESKRITURATZEKO ALKATEARI SINATZEKO
BAIMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.**

2.007ko urriaren 30ean egindako Udalbatzan onartua.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
UDALERRI ENPRESA PROIEKTUA BURUTZEKO HITZARMENA
SINATZEKO ERABAKIA HARTZEA.**

Alkateak, Udalerri enpresa proiektu honen laburpen bat egiten du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bertaratutako zazpi zinegotzietatik seien adostasun eta zinegotzi baten abstentzioarekin, Udalsarea 21en idazkaritza teknikoaren (Ihobe, S.A), Tolosaldea Garatzen, S.A-ren. eta Adunako, Anoetako, Asteasuko, Belauntzako, Ibarako, Irurako, Tolosako, Villabonako eta Zizurkilgo Udalen artean Udalen eta enpresen arteko ekintza planak egiteko Tokiko Agenda 21en proiektuan parte hartzeko lankidetzaz hitzarmena onartzea eta Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena ematea erabaki du

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Araudi, S.L.-k Udaletxeko inbentarioa eguneratzeko lanengatik aurkezturiko %30-aren faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

2.- Tolosaldeko Mankomunitateak 2.008 ekitaldirako Sasieta zabortegiko isurketak urtarriletik ekainera egiteagatik aurkezturiko 11.856,65 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

3.- Aranzadik Adunako Arau Subsidiarioetarako egindako ondarezko inbentario eta beste zenbait lanengatik aurkezturiko 12.750,99 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

**HAMARGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bat ordu eta hamar minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.